

Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko urriaren 21a / IV. urtea / 149. zenbakia



Beran irailean ospatu zen Nafarroa Oinez sinbolaria izan zen: bere helburua lortzeko Bidasoa ibaia traba guztien aurka igoko zuen izokina. Izan ere, izokinak —Labiaga Ikastolak— bide osoa egin nahi zuen, haur eskolatik 18 urte arte. Horretarako, —Bigarren Mailako Hezkuntza emateko— behar zuen, hain zuzen, jaialdia. Polemika, baina, ez da berandutu, Nafarroako Gobernuak

Izokina, ur uherretan

Bortzirietako ikastetxe burua izendatu baitzuen Berako Institutua. Eskola Publikoko partaideek diote ikastola itxi dela hagit, eta alderdi osorako kalitatezko ikastetxe bateratu bat egiteko aukera galdu dela. Ikastolakoek, aldiz, proiektu berezia —beren proiektua— dutela azpimarratzen dute, eta uko egiten diote eztabaidetan aritzeari. Ur uherrak izokinarendako.

Zilarrezko ezteiak

Nafarroa osoko dozena erdi ikastolak bere 25. urteurrena ospatuko dute aurten. Enblematikoenetarik eta ikasle kopuru haundienak dituzten gehienak, tartean. Nola edo hala, hortaz, Ikastolak bere zilarrezko ezteiak egiten ditu 1995.ean Nafarroan. Ikastetxe bakoitza bere kasa abiatu bada ere berea prestazera, denak biltzen dituen Federazioak ez du galduko ospakizun honen kariaz arrabotsa ateratzeko parada. Zentro hauen etorkizunak publikitate eta premia duela ikasi dugu ez aspaldi.

Gisakoetan ohi denez, lorpenak azpimarkatuz mintzatuko dira seguraski kanpora begira. Pedagogiaren mundura ekarri dituzten

berrikuntzez landa, euskarazko irakaskuntza katakunbetatik jalgi eta normalkuntza bidean emana diegu zor. Badute zertaz harrotu zertaz harrotu badutenez. Aalabaina, penagarria litzateke horretara mugatzea.

Lorpenak aunitz izanagatik, nolabaiteko porrotaren itzaletik ere ez dira libratu. Eskualde erdal duntan bereziki, ikastolak —ikastetxe publiko elebidunak bezala— erdipurdiko tresna baizik ez dira gertatu haurrak benetan euskalduntzeko. Hainbertze ikasleren euskara maila lekuko. Etxetik erdaldu izan arren, haurren mintzamenak, ulermenak, idazmenak eta irakurmenak hobera egiten dute urtetik urtera mugiltze

Amen eta omen

AINGERU EPALZA



sistemaren bidez ematen zaien irakaskuntzari esker. Mintzamenari dagokionez, baina, aitzinetik eten nabarmena jasaten du maiz

13-14 adin kritikora ailegatuta. Ikasgeletan ikasten duten euskara ez bide dute jada aski une horietan uholdeka etortzen zaizkien bizipen, asmo eta burubide berriak adierazteko.

Adin horretan, nerabeak hizkuntza jolasgai ere izan daitekeela deskubritzen du, baina ikasgaietako hizkera zurrunik edo maisumaistra frankoren adierazkortasun eskasetik deus gutti balia daiteke hitz-jokuak egiteko. Sexua gai nagusia da neska-mutikoen solasetan, baina Gizarteko liburuan ikasitakoak hiztegi pobreegia osatzen du gaiari zuku guzia ateratzeko. Diferente izan nahi dute inguruko nagusiengandik eta diferentzia hori hizkeraren bidez markatu, baina irakaskuntza sistemak horretan ere umezurtz uzten

ditu, bere baitan diferentziak, berezitasunak, debekaturik baitaude, baita hizkerakoak ere. Edo hizkerakoak bereziki.

Lehenagotik egiten ez bazuten, erdaraz joko dute zuzenean eta lotsarik gabe. Beharko, mutu geldituko ez badira. Haietariko zenbait berreskuratuko dira gero 'kontzientzia' delakoaren xirimolak jotzen dituenen. Bertze batzuk, euskaraz lau hitz elkarri lortzeko gauza ez dira izanen ikasgela utzi eta urte guttitara. Izerdi eta diru aunitz alferrik galduak. Problema ikastolatik kanpo dagoela ihardetsiko zait, eta errua gizar-teari eta inguramenduari leporatuko. 'Bigu-ka' hasteaz gain, ordea, horretaz gogoeta egiteko egokiera ona izan liteke heldu den urtekoa. Gure artean.

XX GURE AUKERAK

ERAKUSKETAK



Nafarroako Paisaia Jesus Lasterra pintorearen erakusketa zabalik dago Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoan. Asteleheneretan itxita, honako ordutegia du beste egunetan: astean zehar 11.00etatik 13.00etara eta 17.00etatik 19.00etara; jai egunetan 11.00etatik 13.00etara. Azaroaren 2a arte iraunen du.

'Bardeak, basamortuaren arkeologia' izenburuko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan azaroaren 6a arte. Bertan, herrialdeko eremu honetan izandako aldaketak agertzen dira, bere ezaugarriak erakutsiz. Goiz eta arratsaldean joan daiteke astegunetan, igandean itxita baitago.

ZINEMA



'Alien, el 8º pasajero' izeneko pelikula botako dute gaur ostirala, urriak 21, Nafarroako Museoan, Monstruo eta beldurrezko zinema zikloaren barruan. Arratsaldeko 19.30etan hasita, sarre-ara dohainik izanen da.

'El rapto' izenburuko filmea eskainiko dute heldu den ostegunean, hilak 27, Iruñeko Olite zinemaren. Nafar Ateneoak Zinema Mexikarrari buruz antolatutako duen zikloaren barruan, arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

'Geronimo' izeneko pelikula botako dute bihar larunbata, hilak 22, Arrizabalagan. 'Udazkeneko Bira' kanpainaren barruan, gaueko 21.00etan hasiko da, herriko pilotalekuan.

ANTZERKIA



'Munduko malabaristenak' antzezlanaren taularatuko du bihar larunbata, hilak 22, Zirko Tipia taldeak Labaien. 'Udazkeneko Bira' kanpainaren barruan, arratsaldeko 17.00etan izanen da, herriko plazan.

Iruña Pequeño Teatro antzerki taldeak 'Bazten utzitako panpinaren historia' izeneko lana aurkeztuko du asteburu honetan Ituren eta Antzin herrietan. Gaur arratsaldeko 20.00etan Iturenen ariko dira, Trinketan; eta igandean, urriak 23, Antzinen taularatuko dute obra hau, arratsaldeko 18.00etatik aurrera, herriko plazan.

NAFAR KRONIKA

GAIZAKA ARANGUREN

Izargiren aitari, Txantreako Lehoiari eta, naski! bertzeei

Udazkeneko belar sortuberraren usaina doakizue gutun honetan. Inguratzen nauden ariztiaren gorri-ubeldua bidali nahi dizuet esaldiotan. Ehiztarien tiroek eten nahi duten usataldeen

hemendik aitzina, Josebe Urbasa edo Aralar aldean zizak ikusiz gero zurekin oroituko dela. (Eta Mekauen la puta-ka hasiko dela amorru biziz). Astelehen gauean, Eguzki Irratian zure izena ahoz-

eraikiko duzun txabola (ez txaboloa), irudikatzen hasia naiz. Bisitan-joanen natzaiz. Zalantzarik ez. Bilbotarrak gripea gaintu duelakoan nago. Ezin adiorik erran virus penitentiarioaren erruz! Kauen! Joseanek atzo alde egin zuen arren, guztiok bere horretan jarraitzen al dute? (Berak badaki). Eta Pirenaiko? Inoren sorbalda apurtu al du jada? Hor dagoen bitartean lasai joan gaitzke Irati aldera. Cantolaguaren euskara klaseak ildo onetik doazela espero dut. Erran didatenez Zangozako Ikastolako zuzendari izan nahi du ateratzerakoan.

'Liburujale-Biserazale-Kafe izen' hori, azken astean urduritasunak jota egonen da ziur aski, nahiz eta zaila iduritzen zaidan irratigizon hori urduri irudikatzea. Berriozarren ez dakite jada zer egin Ameba eta Futbol taldearekin. Herriko karraketan diotenez, aspaldian joan zitzairen Amebari benetako jaki pedagogiko-didaktiko ematen zion irakaslea. Orduanik, Ameba, San Rokeko harreria bestaldeko galerien hesteetan omen dabil. Eta futbol taldeari dagokionez... HKA torneoko 4. mailara jaitziko direla diote, jorkaldi estrategikoen krokisak, sekretu gisa, kartzelara eraman zituelako entrenatzaileak. Alboka, Abloika, Blokaa, Boklaa, Bokala, Bokazas! (...) Ez! Gaixoa Utxetxi. Hala ere, astero baduzu sartuberriren bat urduri jartzeko eta umore beltza lantzeko. Lasai beraz! Txitxo Ibañez Serradorri hatzeko ebakia sendatuko zitzaion dagoeneko! Gainera, datu-taula berri bat egin behar duenez... Zuen zaindarien abisu berezia: kasu! Ez dezate buruaz jo hor barruan dagoen Orma-ren aurka. Egoskorak baitira Sakanakoak! Aipatutakoei eta aipatu ezinik gelditzen direnei: On egin!



abiadura oparitu nahi dizuet hiru minututan. Dastatzen ari naizen urraren gustua ezarri nahi dut zuen mihietan. Hor beheitiko errekararen soinu kilikagarria dantzan ikusi nahi dut zuen izter artean. Zapaltzen dudana orbelaz bete nahi ditut zuen ziegak. Hola, giro honetan, zorientasunaz mozortuta nahi zintuzketet. (Honarte atal sasipoetiko eta horteratsua). Izargiren aitaren haginez horzkatu nituen astelehenean jan nituen ontto beltzak. Bai; hortik aterako zaren egunean halakoak ebasteko horren grina handia izan ez dezazun. Badakizu... bertzenaz, Josebek betikoa erranen dizu belarriara: «Robasetas!». Ziur naiz, ordea,

katzen zuenean Mañuk jarritzen zuen aurpegi bera jarriko du Olaztiko P.C. zaleak. Bejondeizula Josebe!!

Txantreako Lehoiaren bizarrak ahazten ez direnetakoa da. Sekula ez dut ikusi horren bizar mamitsua. Bere handitasuna, babesten duen aurpegiaren zintzotasunaren adierazle da. Aspaldi hirugarren gradura pasa ziren intsumitu aunitzek Lehoiaren ontasuna darabilte hitzetik hortzera literen arteko solasaldietan. Bai, Lehoi, Guliako agure bizilagunaren bi hauntzak ikusten ditudan bakoitzean —ia egunero—, zuk erosiko dituzun bi hauntzak direla pentsatzen dut, eta Ergako hariztietan

ASTEKO PERTSONAIK



Pablo Milanes
Abeslaria

uskal Herrian hiru kontzertu eskaini zituen joan den asteburuan Pablo Milanes kantari eta konpositoreak, Iruñean larunbatean izan zelarik. Telonero moduan Ruper Ordorika aritu zen, edo hobe esanda, aritu behar zuen, azkenean, arazo batzuk izan zirela eta, hiru abesti besterik ez baitzituen jo. Milanes, ordez, gustura aritu zen, luze, bere betiko abestiak 'Origenes' disko berriko kantuekin nahastuz. Hala ere, motel dabilela ere argi utzi zuen, eskenatokira igotzeko laguntza behar izan zuen, jaisteko bezala. Jende ugari bildu zen Anaitasuna poliki-roldegian, ez baita askotan etorri Iruñera Pablo Milanes Kubako kantari ospetsua, eta horrelakotan aprobetxatu behar da zuzenean entzun ahal izateko.



Jose Luis Beaumont
Abokatua

Irailaren 15ean epaitu zuten Jose Luis Beaumont Itoizko koordinakundeko kidea, fiskalak «agintarien kontrako atentatua» izeneko delittoa leporatu baitzion. Ondorioz, urtebeko kartzela zigorra eskatu zuen bere aurka. Epaia aste honetan bertan atera da eta epaileak Beaumont absolbitu egin du, bere kontra kargurik aurkitu ez dituelako. Pozik agertu da akusatua, epaiketa hasi aurretik garbi esan baitzuen bera delitoren egilea baino «kaltetua» zela esanez, Goardia Zibilek kolpatu baitzuten atxilotzerakoan. Fiskalak ordea, indarkeria berak erabili zuela leporatu zion. Orain, Patxi Gorraiz eta Daniel Unziti koordinakundeko kideen kontrako epaiak aterako dira, urriaren hasieran, epaitu baitzituzten. Ia hau bezain onak diren.

AHAZTU GABE!

IKASTAROA



'Sexualitatea eta Jeneroa' izeneko mintegia izanen da heldu den astean Iruñean, GITE Elkarteak eta Andrea Emakumearentzako Zerbitzuak antolatuta. Urriaren 26an, 27an eta 28an burutuko da, Alde Zaharreko Oskus Kultur Etxean, arratsaldeko 15.30etatik 21.30etara. Izena emateko epea 26an bertan bukatzen da, baina ahal bada aurreratik ematea gomendatu dute antolatzaileek. Cristina Garai-zabal psikologoak zuzenduko du eta edozein emakumek har dezake parte. Hiru puntu aztertuko dira. Batetik, sexualitateari buruzko irizpideak, psikoanalisi eta beste teoria batzuk azalduz; bestetik, sexualitatea eta jeneroa, kontzeptuen azterketarekin batera lesbianismoa eta transexualitatea mahai gainean jarri. Azkenik, sexualitatea zapalkuntzako bide gisa aztertuko da, hor barruan HIESaren inguruko azalpenak egingo dituztelarik. Izena emateko telefonoz deitu edota GITE edo Andreako egoitzetara zuzenean joan besterik ez dago. Langabezian daudenezat, gainera, merkeago izango da.

jenero xumekoak

Allons, nornahi zarelarik ere, zatoz nirekin bidaiatzera. Ostatu honetan gozorik bada ere, goazen aurrera, zeren ez baita munduan kontsolamendu handiagorik, galdutako plazerrekin amets egitea baino.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneratik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Altsasu

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Lau urte gaztetxea eraikitzen

AMAIA AMILIBIA / ALTSASU

Altsasuko Gaztetxeak lau urte bete ditu eta Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi antolatu zituen joan den astean urtemuga ospatzeko. Ekitaldiak asteazkenean hasi eta larunbat bitartean luzatu ziren, eta Nazioarteko Monetario Fondoan (FMI) eta Banku Mundialari buruzko eztabaida saioak izan ziren, antzezlanak, herri kirolak Iruñeko Gazte Asanblada eta Altsasuko Gazte Asanbladaren artean, artisau eta argazki erakusketak, falta direnei omenaldiak, eta abar oparo bat.

1990ko urriaren 5ean Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) egun Altsasuko Gaztetxea den etxea okupatu zuen. Nahiko ondaturia zegoen eta lau urte hauetan etxearen eraberritze lanetan buru belarri aritu behar izan dute. Lau urte bete dira, beraz, ametsa eraikitzeari ekin ziotenetik. Lehenengo urtean etxearen behakaldea garbiturik, taberna eta eszenatokia antolatu zuten. Tabernatik lortutako etekinetatik teiltatua konpondu zuten iaz eta orain dela gutxi, ganbara eta lehenengo solairua egokitu dituzte.

Lau urte izan dira etxea konpontzen eman dituztenak baina denbora tarte honetan beste ekintzak antolatzeko eta bideratzeko tenorea ere izan dute. Urteotan berrehun bat musika talde izan dira Gaztetxean kontzertuak eskeintzen. Hori izan da Gazteetxearen ekitaldirik azpimarragarriena, Altsasutik kanpora irudia zabaldu eta ezagutarazteko baliogarria izan delako. Izan ere, Nafarroa osoan kontzertuak antolatzen talderik sendoenetakoa eta iraunkorrenetakoa izan da AGA. Eta ez dira antzezpen ez eskulangintza tailerrak ez eta tailerrak edota erakusketak eta eztabaida saioak Gazteetxearen dinamikatik at geratu. Bitarte honetan Gazteetxeak Altsasutik falta duen antzeztokia eskeini du hainbatetan.

AGAREN asanbladak asteazkenean gaueko bederatzietatik aurrera izaten dira. Asanblada anitza da eta gazteentzako zabalik dago. AGAko kideen esanez, gero eta gazte jende gehiago eta gazteago joaten da. Lau urteotan gazteek berak gestionatutako etxe baten eraikuntza lan egin dute. Ametsa gero eta hurbilago eta benetazkoago bilakatu da.

Eorkizunari begira, serigrafia eta argazki tailerrak bideratu nahi dituzte, horretarako gela bat egokitu baitute eta. Lehenengo solairuan ere jendeak emaniko argitalepenek eta Gazteetxeak erosiko dituen liburuekin liburutegi bat antolatu nahi dute.



Gaztetxea okupatu zen egunean, buru belarri lanean.



Ospakizunetan egindako festa batean.

AMAIA AMILIBIA

Astiz

Mentrokilloko leizea itxiko dute

IRUNEA

Mentrokilloko leizea ixtea erabaki berri du Nafarroako Gobernaren Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, Jose Ignacio Lopez Borderias departamentu buruaren bidez hartutako akordio baten arabera. Horretarako 6,6 milioi pezeta erabiliko dira, eta lanak Transportes y Excavaciones Veloiz S.L. enpresak bideratuko ditu.

Hasierako aurrekontua 7,5 milioi pezetakoa zen, baina azkenean %12an merketu da.

Leizea oso ezaguna da inguruan, eta Astitzen bertan, Irurtzundik Lekunberrirako bidean, herriatik 400 metrotara dagoen bide batetik heltzen da. Hortik leizearen zuloraino 2.400 metro daude. Zulo, hain zuzen, oso bertikala da, eta ixteko harresi moduko horma paratuko da bi metrotako zabalera baten gai-


nean eraikiko den hormigoizko oinarri batean. 2,50 metrotako burnizko atea era paratuko da bertan, eta atzean, leizearen oxigenaziorako tartea geldituko da, 2,50 bider 2,50 metro karratutakoa.

Goian, lurraren parean, adreiluzko horma bat altxatuko da, metro batera, eta horren gainean, leizearen ezaugarri guztiekin —izena, sakonera, zabalera— kartela paratuko da.

Revival-zaleak

Karinak aspaldian esan-kantatu zigun oroitzapenen kutxan barna arakatzerakoan, uuh, iraganeko edozein garai egungoa baino hobea iruditzen zaigula. Bete-betean asmatu zuen zozo puska hark aburu hori plazaratu zuelarik. Horri esker, 60. hamarkadako kantari petralak, Lazaro bezala, artistikoki hilik zirudite-nean zutitu eta berriro ere eszenatokiz eszenatoki ibiltzen hasi dira.

Hor dabil Karina bera, eta berearekin batera Nicky —inoiz baino burusoilago—, George Dam —inoiz baino zimurtuago—, Amaia —inoiz baino lodiago—, Sergio eta Estibalitz —euskal Pimpinellak beti bezain triste— eta abar luzea. Haien kantekin malenkoniatsuei aspaldiko oroitzapenak gerturatzen dizkiete, eta horretan datza, hain zuzen, haien arrakasta. Pop-ero zaharrak ez dira inoiz hiltzen. Revival-eko errege-erregina k dira, eta La Década Prodigiosako neska-mutiko alaitsu eta kementsuak INEMera bidali di-



luzte. 60. hamarkada 'zoragarrian' hazitutako espainiarrak bezala, 80. hamarkadan gizondu eta gizendutako iruindarrok —garai hartan emakume bilakututakoek baita ere, baina horiekin ez zegoen txistea egiterik—, badugu gure oroitzapenen kutxa, eta, jakina, horretan arakatzen dugunean, uuh, iragana oraina baino hobea iruditzen zaigu. Jende oro bezala, revival-zaleak gara gu. Caldereria, Navarrieria, Jarauta eta San Frantzisko karraketako tabernariak aski ongi dakite hori, eta azken bolada honetan maiz jartzen dituzte entzungai Cicatriz, Zer Bizio?, RIP, Eskorbuto, Delirium Tremens, Kortatu, Itoiz eta beste hainbatentzako kantekin osatu revival poutpurririk.

Noiz izanen dugu Década Prodigiosak eginiko lan zoragarri hori guretzat eginen duen taldea? Noiz birbirtuko dira Karina & Cía. bezala euskal rock talde horiek guztiak? Argi dago azkenean gure ordua helduko dela; izan ere, Miguel Riossek abestu zuen legez, rock-a boomeranga da eta beti bueltatzen da.



ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Ez da bestondo patsadatsua —ohi den bezala— izan Beran. Bestondoa, bai, izan dute «baina besta ebatsita» zeudela zioen 'Tipi-tapa' aldizkarian Joxean Oiz Nafarroa Oinez-eko koordinatzaileak, eta aurtengorako «itsaso handia» espero zutela. Hori gabe ekaitza heldu zaie, eta ikastolen festa honen inguruan inoiz baino polemika handiagoa dago egunotan. Ez da bakarrik festaren amaieran izan ziren istiluak baina, bereziki, Bortzirietako herrian eskola publikoaren eta ikastolaren artean dagoen lehia. «Nafarroa Oinez behar da oraindik, baina ez Beran» da euskarazko irakaskuntza munduko profesional batzuen ahotan entzun den esaldia.

Gauza jakina da haurren jaiotzen beherakadak arazo larriak sortu dituela hainbat herritako ikastetxeetan, eta Nafarroako Gobernua indarrean jartzen ari den Eskola Mapa zentro hauen guztien aprobetxamendua arautzeko eratu zen. Bada, Bortzirietan Bigarren Mailako Hezkuntza —12 eta 18 urte bitartekoa— eskaintzeko tokitzak Berako Lanbide Heziketako Institutua aukeratu zuen Gobernuak, eta horrek gauzak franko zailtzen zizkion Labiaga ikastolari, aspaldiko asmoa baitzuten ziklo osoa ematea. Nafarroa Oinez antolatzeke nahia behar bilakatu zen. Hortik ateratako dirutzak erraztu egingo zuen hezkuntza osoa eman ahal izateko behar diren inbertsioak egitea, eta bide osoa egin ahal izango zen bertan, Nafarroako Ikastolen Elkartearen asmoa baitzen Lesakako eta Berako 16 urtetik aurrerako haurrak bertan batzea.

Baina Bortzirietan txikia da, eta ez da bi eskola izateko haur nahikorik. Zenbait daturen arabera, datozen urteetan Bortzirietan 12 urterekin eskolarizatuko diren ikasleen kopurua, urtero, 60 ingurukoa izango da D ereduan, eta B eta A ereduetan behera egingo du. Arazoa denon ikusmiran zegoen, eta horri aurre egiteko 1991ko azaroan Jose Maria Irazoki Berako Institutuko zuzendariak Bortzirietako ikastetxe guztiak elkartu zituen, alderdi osorako plangintza bat proposatu eta kalitateko hezkuntza koordinatu bat egiteko. Bera eta Lesakako ikastolek proposamen bateratua ez zitzaizela interesatzen adierazi zuten orduan, bazutela eta euren proiektu berezia.

«GHETTO-A' MANTENDU NAHIA» Polemika Oinez-en ondotik piztu da, nahiz eta aspaldikoa izan, eta hitz gogorak jaurtiki dira ikastolaren



Berako Labiaga Ikastola.

EDURNE KOCH

Oinez-en bestondoa

Nafarroa Oinez istilutsuena izan zen Beran irailean egindakoa, eta horren ostean polemika heldu da Bortzirietara eskola publikoko eta ikastolako kideen artean. Ez da polemika berria, ez Beran ez Nafarroan, baina franko bizitu da ikastolen jaiaren ondotik, Bigarren Mailako Hezkuntza emateko biak lehian ari direlako, denen ustez bakarrarendako tokia besterik ez egon arren.

aurka. «Sektarismoa», «ghetto-a mantendu nahia», «euskaldun-goaren egoera berria ahaztu» egin dutela, «helburu merkantilistak» eta horrelako esaldiak irakurri eta entzun ahal izan dira, eta eskola publikoko partaideek ikastolan eztabaidatzeko azaltzen duten jarrera «itxia» gaitzetsi egin dute. Eskola publiko-koek diote ikastolen hasierako asmoa zela eskola publikorantz abiatzea, hori askori ahantzi omen zaiola eta euskararen normalizazioan topaguneak biltzeko tenorea dela, «ez harresi gehiago sortzekoa». Ikastolen defenditzaileek, ordea, ez dute hainbat urteren buruan eraikitakoa administrazioaren esku utzi nahi, eta 'pribatu' hitza erabiltzen ez badute ere, mesfidati ageri dira: «zurea dena, zerorrek kontrolatzen duzu». Horrez gain, administrazioaren «joko maltzurra» salatzen dute frankotan, eta hori izan zen Euskararen Legea aldatzea oztopatze-

ko HBren argudio nagusienetako, Erriberan balizko lerro elebidunak bertako ikastolak desgertzea eragin zezakeelakoan. Ez da ahaztu behar, halaber, Berako ikastolak haur kopururik altuen biltzen duela inguru osoan.

Ez da arazo berria, eskola publikoetan euskara sartu ahala hainbat lekutan sortu baita, eta irtenbide ezberdinak izan ditu. Sakana aldean, Etxarri-Aranatzen hain zuzen, borroka latza izan zen eskola publikoko eta ikastolako partaideen artean, eta azkenean ikastola nagusitu zen, berak biltzen baitu gaur egun ikasle kopururik handiena. Leitzan, ordea, Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatu zen arlo publikoan sartzeko, baina emaitza ez da erabat pozgarria izan. Gurasoak kezuka ari dira irakasleak ia urtero aldatzen direlako eta aurrean ikastola garaikoa bost irakasle lanik gabe gelditu dira, gobernua ez baititu errespetatu berorien lanpostuak, akordioa izenpetzean izan ziren irregulartasunen ondorioz.

IKASTOLAKO ORDEZKARIAK MUTU Baina Beran ez da ikusten epe motzeko irtenbiderik. Jarrerak oso finkatuta

daude eta haserrea nabaria da. Ikastolako ordezkariak, kasu, uko egin diote polemika honetan sartzeari, eta EGUNKARIAK hala eskatuta ere, ez dute gai honi buruz iritzirik eman nahi izan. Bitartean, eskola publikoan lanak egiten hasiak dira egoitza zabalteko, eta Oinezetik ateratako diruarekin eraikin berria egin nahi du ikastolak. Irazokiren ustez, enbido latza bota arren, erronka galduta dauka ikastolak. «Gu ados jarri ez ginenez, Nafarroako Gobernuak bere mapa aurkeztu zuen, eta hor Berako Institutua aukeratu dute. Administrazioak, beraz, hitz egin du. Nafarroa Oinez-en anagraman izokin bat azaltzen zen korrontearen aurka, eta azken publikizatean, agurtzeko, izokinak atzera egiten zuen, ez zuelako korrontea gainditu. Hori da bide zuzena». Gabina Goia Arantzako eskolako kidearendako ere, «egokorkeria» dago ikastolaren aldetik, eta proiektu bateratuaren

alde mintzaten da garbi. «Nik nahi nuke eskola sendo bat egin Bortzirietan hiru urtetik hasi eta Unibertsitateraino hezkuntza sendoa emango lukeena; euskalduna eta hezkuntza proiektu bateratu batekin, bai ikastola eta baita eskola publikoetako irakasleago ere batuko litzukeena. Ikastolak orain badu indarra eta hagitz momentu ona litzateke Nafarroako Gobernuarekin negoziatio bat egiteko, eskola euskaldun berri bat egiteko, baina ez da borondaterik beraien aldetik, itxita daude».

Bertako eztabaida izan arren, ondorioa oso garrantzitsua izan daiteke Nafarroako ikastetxe askorendako, euskararen irakaskuntzaren etorkizuna bera ere erabakitzen ari baita. Eskola publikoaren aldeko Sortzen erakundearen ustez, ikastolaren lana «derrigorrezkoa» da gaur egun oraindik, «Hezkuntza Publikoak ez dituelako euskarak eta euskal irakaskuntzak behar di-

Bortzirietako ikastetxeak 1991n bildu ziren plangintza orokorra egiteko, baina ikastolek proposamena ez zitzaizela interesatzen azaldu zuten.

Eskola publikoko kideek diotenez, ikastolen hasierako asmoa eskola publikora heltzea zen, baina ikastolek ez dute lortutakoa administrazioaren esku utzi nahi.

Izokina,  ur uherretan

mintzoak

tuzten baldintza onak jartzen» eta arazoaren irtenbidea zaila dela diote. «Bi aldeek arrazoia dute» azaldu du Ricardo Ederra Sortzenekoak, «baina uste dugu ikuspegi orokor batetik ikusi behar dela arazoa. Ikastola eskola publikoaren barruan integratu behar dela diote, baina horrela ikastolek esan nahi dutena, mugimendu hau guztia, zalan-tzan jartzen da; bestalde, eskola publikoa ezin da integratu, sistema honen kontrakoa delako. Beraz, hezkuntza sistema aldatu gabe oso zaila da konponbidea, eta garbi dago sistema bera euskal irakaskuntzaren fretoa besterik ez dela».

INFORMAZIO Auzia nekez **FALTA** konpontzeko a **HERRIAN** da, denen aburuz interes asko nahasten baitira —lanekoak, talde konkretuenak edota politikoak ere—. Nolanahi ere, irazokiren ustez, kalte besterik ez du ekarriko egoerak. «Ni hezkuntzako profesionala naiz, irizpide pedagogikoak erabiltzen ditut, eta horien arabera ikusten dut hemen ez dela komeni bi ikastetxe edukitzea.

Euskararekin zer egin behar da: batzuk harat, bertzeak honat, dena zatituta, edo denak euskalduntzeko proiektu bat eraman? Euskara ez dakitenak ere zer sartuko ditugu, *ghetto* batean? Nire semeak euskaldunak dira, eta gazteleraz hitz egiten dutenekin ez daitezela kutsatu nahi al dut? aldrebes! Edo ez ditugu erdaldunak euskaldundu nahi? Nik behintzat euskaldundu nahi ditut».

Halaber, herrian dagoen informazio falta azpimarratzen du Institutuko zuzendariak, eta hitz egiteko beldurra nabaria dela dio Goiak. «Gai honi buruz eztabaidarik ez dago karriketan edo udalean, jendeari iruditzen zaiolako ikastolaren edo euskararen aurka joatea dela. Beraz, ahoa ixten du».

Konponbidea bilatzerakoan jarrerak oso hertsia direla eta horretarako garai aproposagoak izan zirela nabaria da. «Irakasleen artean jarrera itxiak daude» berresten du Goiak, «eta hagitz itsusia da kanpotik ikusita. Ikastolako Juntan eta Eskoletako Kontseiluan ere elkarririk gabe, eta jendeak, aldiz, ez daki, ez du iritzi garbirik. Baina garbi dago eskola publikoan hezitako haurrek gaur egun 18-19 urte dituztela. Arlo guztietatik defendi daiteke eskola publikoa euskaraz, eta ikastolako gurasoak zergatik ezin dira euskararen alde borrokatu beste proiektu honetatik?».

Denek badute egoeraren berri, baina inork ez du soluziorik ematen. Akaso soluzioa ikastolan dago, baina hangoek ez dute hitz egin nahi. Bitartean, dirutza —publikoa eta Beran bildu zen jende andanarena— xahutzen ari da bat egiterik ez duten bi proiektuetan.



Oinez-en ondotik sortu da polemika guztia.

EDURNE KOCH

Tuteran lanean jada

A.B. / IRUNEA

Ez zaie errelebu lasaia egokitu Tuterakoei 1995eko Nafarroa Oinez antolatze baina, kokildu gabe, buru-belarri ari dira dagoeneko lanean. Lan batzordeak osatuta, astean behin biltzen dira horietako ordezkariak Batzorde Iraunkorarekin, eta lehendabiziko gestioak —ekintzak, mantenimendua, publizitatea, diseinua, kanpaina— egiten hasiak dira. Halaber, Argia Ikastolak lokal bat alokatu du Tuteran bertan handik lan guztia koordinatu ahal izateko.

Nola egin Nafarroa Oinez bat Tuteran? Galdera ona. «Guk ere

ez dugu formula magikorik» azaldu du Argiñe Korta ikastolako zuzendariak, «baina urtean zehar egin beharreko lana aurrera aterako dugula uste dugu». Ikastolaren inguruan 80 bat guraso daude, baita hamar langile ere, eta jada laguntza emateko Erriberako hiriburuko euskaltzaleen —Dantza taldeak, eskulturgia— eskaintza ere jaso dute. Hori bai, bistan denez, azken hilabeteetan eta Nafarroa Oinez-en egun berean jende andana beharko da.

Jose Ignacio Perez-Sola Tuterako alkatea Berako ekitaldian izan zen eta harriz galditu omen zen ikusi zuen jendetza

eta antolakuntzaz. Horrela, eta duela gutxi arte harremanik ez bazegoen ere, lehendabiziko bileretan Udalaren laguntza oso emateko prest azaldu da. Hala ere, lan gogorra egin beharko da herritarren artean istiluen irudia ahaztarazteko eta, bereziki, Nafarroa Oinez zer den erakusteko. «Urte osoko kanpaina izango da gurea» dio Kortak, «zergatik antolatzen dugun Oinez, eta Oinez bera zer den erakusteko. Hori izango da gure lana».

Bitartean, ibilbidea zehaztuta dago —hiritik kanpo izango da—, eraikin berrirako lur-sailak aspaldi daude erosita eta lanak urtarrean hasiko dira. Fontellaren kokatuta, hotela izan behar zuen eraikin bat aprobetxatuko dute, eta bertan egingo da Argia Ikastola berria. Behitegi-batetik hotel batera. Ez da aldaketa txarra, ondo merezitakoa baizik.

Berant

● Herri dohakabe hontan uste izaten dugu lorpen handiak eskuratzen ditugula gure indar eta ahaleginez, eta hala izan ohi da duikabe; halere zenbeit tokitan berant heldu ote direlakoan nago; erran nahi beita, ez genituzkeela atxemanen tenore on balitz, dela herri txikitian. dela Herri osoaren mailan, eskasten arabera. Hortxe sistema-ren jukutria.



Berant heldu da gure ibarretara, konparazione, Euskarazko irakaskintza. Hizkuntzaren transmisio naturala abantxu eten delarik lortua dugu Euskararen sartzea eskolan; alta aintzinean, haurrak osoki euskaldun zirelarik, ez zen ames-terik ere.

Berant heldu dira bide bazterreko seinaleak Euskaraz (oker emanik ez dudenak, ardura ikusten dena bertzalde), herriak erdaraz izendatzeko ohitura erabat erroturik dagoelarik jendearengan.

Berant sartu dituzte legegaren 'eremu euskaldun' (?) gure lurak udal-tako idazkariak euskalduntzeko (?), zinegotzi guziak erdaraz beizik ez dutelarik elekatzen.

Berant atxeman dugu irrati bat, irratiak tenore batez zuen indarra batere ez duelarik eta sekulan izan zezakeen aditzaile kopururik txikiena duelarik egun, herriak hüstutzen ari direlako.

Berant eskuratu ginduen bezala Euskal Telebista ibarrean ikusi ahal izatea (oino hala-hola bada ere), arrazio ber-berengatik.

Berant ekendu (?) daukute muga iguingarria, harremanak arras ahuldurik direlarik egun bi aldetako jendeen artean.

Berant, azkenik, igorri berri dute herrira apez euskalduna, hondarreko lauetan ogei urte luze hauetan egin ez dutena. Nahi ala ez, xakin badakigu herri txikitako apezek duten eragina hizkuntza aferetan (geinera-koez landa, xakina) eta ikusiak gira lehenagokoek, alor hontan, inguruan egin lan deitoragarria.


Dezagun orei berean fini, zeren etorkizunari so egin ez gero izitzen bein izen pentsatuz zer gehiago erdietsiko ote dugun berant...

Zer hel ere aipa dezagun, gure konsolagarri, aspaldiko leloa: hobe berant ezen ez jagoiti.

Hala ote?



XAKEAN



Nafarroako taldekako txapelketako lehenengo ihardunaldiko partida. 1994ko urriaren 8an jokatua.

Iñigo Ganuza, 2.075 ELOkoa (Lizarrako Alekhine 'A')- Unai Garbisu, 2.310 ELOkoa (Iruñeko Orvina 'A').


1. e4, e5; 2. Zf3, Zc6; 3. Ab5, a6; 4. Aa4, Zf6; 5.0-0, Ae7; 6. Ge1, b5; 7. Ab3, 0-0; 8.d4, d6; 9. c3, Ag4; 10. Ae3, d5. Jokaldi ederra, erdigunea irekitzeko. Azkeneko helburua: Peoien katea (dama aldean) apurtzea, alfilzaldia trukearen bidez. 11. d5,d4; 12. c6, e3; 13. Ge3, Ac5. Zera egin dezakete: 14. Gd3, De8 (gero etorriko litzateke Ze4). Txuriek ez dute erraz peoien oreka mantentzea. 14. Ge1, Db8; 15. h3, Gd8; 16. De2, Ge8; 17. Df1, Af3; 18.f3. Beltzen asmoa bete egin da. Txurien dama aldeko peoiek gutxi balio dute, lotura moztu eta gero.

18..., Db6; 19. Zd2, Dc6. Txurien peoi horrek ez zuen etorkizunik. Beltzen posizioa, ordea, askoz hobea da. 20. Dg2, aG-d8; 21. Zf1, Zh5; 22. Dg4, g6; 23. f4, Df6; 24. Dg5. Ikus Koadroa. Beltzek irabazita dute partida. Nola da jarraipen zuzena? Gogoeta egin, eta gero ikusi. 24..., Dg5; 25. g5, Zf4; 26. h4, Af2 xa; 27. Ef2, Zd3 xa. Gazteluaren galeraren aurrean, txuriek amore eman zuten. Beltzen teknika izugarri zehatza izan zen.

Bidaiari amorratua

Mikel da, hain zuzen, ipuin honetako protagonista. Mikelek asko atsegiten zuen bidaiak egitea. Horregatik, bakarrik bizitzeaz asperturik, bidaiak bat egitea erabaki zuen. Baina nola? Ez zeukan dirurik, oso behartsua baitzen. Bapatean ideia bat piztu zitzaion bere buruan: aireportura joango zen hegazkin baten sotoan izkututuko zen bidaiarien poltsen artean.

Berehala bete zuen pentsatutakoa. Eta



Aritz Erro
(BARAÑAIN)

erabaki zuen berehala zerbait ahora eraman behar zuela.

Hango kale estuetatik sartu zen ia ia korrika eta laister jatekx baten itxura zeukan zerbait ikusi eta han sartu zen. Segituan eskatu zuen bazkari on bat bere ingeles traketsa erabiliz. Errege bat bezala gelditu zen eta ordaintzeko momentuan horrela esan zion zerbitzariari:

—I'm very sorry, but I haven't got any money (Asko sentitzen dut, baina ez daukat dirurik).

Zerbitzaria jabearen bila joan zen eta



han gelditu zen lotan poltsa guztien gainean. Esmatzerakoan pentsatzen hasi zen: «Nora eramango nau hegazkin honek?». «Berdin dio, nik bakarrik munduko beste muturreko herrialdeak ezagutu nahi ditut».

Gure Mikel oso baikorra zen eta dena ongi aterako zitzaioa uste zuen. Handik minutu gutxitara hegazkina lurreratu egin zen. Mikel, hegazkinetik jeitsi bezain laister konturatu zen herrialde hori oso arraroa zela eta ez zekien non zegoen. Bere ondotik pasatzen ziren per-

tsanak hizkuntz arraro batez mintzatzen ziren. Berak, txinatarrak zela uste zuen, gero, beste pertsona batzuk entzun zituen ingelesez hizketan, zeren berak bazekien ingeles pixka bat. Ondoren, iragarki bat ikusi zuen horma batean. Horrela zioen iragarkiak: «Bank of Thailand».

«Arranopola! Zer da hau? Tailandiako hiriburua? Bangkok?» galdetu zion bere buruari. Hala zirudien. Han zegoen Mikel liluraturik eta bapatean bere sabalaren oiha entzun zituen, zeren bazeramatzan 30 ordu jan gabe. Horregatik

segidan itzuli zen farrezka. Afarria ordaintzearen, plater pilo bat garbitzeko agindu zion. Platerrak ongi garbitu ondoren jabea hurbildu zitzaion eta jatekxan lan egitea eskaini zion. Honek baietz erantzun zion pozik baina handik astebetera aspertu eta lehendabiziko sotsak jaso ondoren alde egin zuen. Itsasontzi baten sotoan izkutaturik hasi zen abesten Kaxiano, Lizartzako itsuaren abesti famatua: 'Itsasontzi baten, Euskalerritik kanpora naramate eta ez dakit nora...'

JUANTXO URDIROZ

Ortzadarraren euskal izenak

Euskara Paradisuko mintzoa zela esateraino iritsi ziren XVIII. mendean. Ziurrenik hori gehiegi esatea da, baina ez baldin bada paradisu mintzoa, duda izpirik gabe, Paradisu baina aurreko espero-gelakoa mintzoa dugu euskara. Ikusi bestalde zer korteski ibiltzen dugun bazter honetan Ortzadarra. Hotz hotzean ikusita, ematen du 'Imagina ezazu izen bat zeruan agertzen den kolorezko marra-kodigo horretarako' txapelketa izan zela hemen, eta nor gehiago horretan inor garaile nabarmena ez izanik, nor bereari eutsi ziola, harik eta euskara batua etorri eta Ortzadarra nagusitu arte.

Elkarren antza daukate azeriak eta ortzadarrak lehenagoko euskal-

dunen hiztegian. Zaraitzun eta Arizkunen Azarien ezteia esaten zaio. Goizuetan Azeria ura edaten ari da eta Donezteben azerien pesta. Kolore eta sinbologia aberatseko basapiztia dugu azeria. Segun eta nongoa den azeria, halako kolorea omen du. Harkaitzeko azeria urdinago omen da oihanekoa baino. Horrez gain, haren buztana, zabala eta nabarra da, ortzadarraren gisara. Ortzadarraren ura eta argia uztartzen direla eta, eztei eta pesta hitzak erabiltzen dira. Hau poesia hutsa da. Luzaiden hortzadarra esaten da; Urdazubin eta Zugarramurdin asperaketarik gabe, ortzadarra. Ortz, Jaungoikoaren lehenagoko izena. Erdi Aroan bizpahiru aldiz doku-



Ez usteak
zure atean joka

Elkarren antza
daukate azeriak eta
ortzadarrak
lehenagoko
euskaldunen
hiztegian.

mentatzen da. Done Iakueko erromesak aipatu zuen bere hiztegi tipian, eta Orreagako saroiaren zerrenda ere agertzen da, *Orçiren çorita çaharra*. Orzegune eta ostegun egun-izenek hitz horretan dute iturri. Wikingoen Thor horren sinonimoa bide da, Jaungoikoa zeruko fenomeno hori izendatzeko agertzea ez da bat ere arraroa. Anue, Esteribar, Ultzama, Atetz, Imotz eta Basaburuan Jaungoikoaren paxa esaten zaio. Paxa da gerrian ibiltzen zen oiha beltz luze hori. Sakanan eta Larraunen Jaungoikoaren gerrikoa esaten da. Horiez gain *kostileka, ostileka* Arraitzen. *Itsasadarr* Donezteben. Baztanen, bataz beste, *eltzaorra*. Fenomeno bat nabarmendu nahi nuke. Goragoxeago esan bezala, Zaraitzu, Arizkun eta Goizuetan azeri hitza agertzen da ortzadarrarekin loturik, eta hiru herri horien artean beste izenak tarrekatzan dira. Hau da, ez da herri

baten asmakizuna, *apax legomen* bat, baizik eta euskaldun jendeak egiten zuen lotura.

Nafarroa garaitik kanpo ez da poesiarik falta ere izaten. *Auriadar* (euri) (NB); *buztarri* (uztarri) (B); *Erromako zubia* (G,B); *Jaungoikoaren zubia* (NB); *San Nikolasen zubia* (B); *ostadar* (Z); *ostarku* (B,G); *Prantziako zubia* (G,AN); *San Migelen zubia* (B); *uztarri* (AN,G); *zubiadar* (R); eta *ustruku* (B). Garbi dago hitz honetan erlijioak zer esanik duela. Hortz, Jaungoikoa; Erroma, San Nikolas, San Migel maiz agertzen dira. Bere ortzadarra zeruan agertzen den fenomeno zerutiar bat da. Nork daki azeriak, zeruraino igotzean, ez ote zuen sinbologia berri bat euskaldun artean, maltzurkeria eta deabruarenaz gain. Informazio iturriak: Ana Etxaideren 'El euskera en Navarra' eta Azkueren 'Herri Yakin-tza'.

Joan zen asteburuan Irisarri, Nafarroa Beherean, 'Ondarearen Egunen' biltoki gertatu zen. Euskal kulturari eskaini egunetan politikoen hitzak izan arren, Iparraldeko natur ondare eta euskal kulturari buruzko agerraldi eta gogetek gaina hartu dute. Nafarroa Beherea euskal ondarearen bilgune nagusi azaldu zen.

Irisarri euskal ondarearen lekuko

LETXEZAHARRETA / IRISARRI

Ondarearen Egunek bi adar nagusi erakutsi zituzten urriaren 15 eta 16an Irisarrin. Bata euskarari buruz eta euskal kulturari buruz egiten diren lanak une honetan Iparraldean eta bestea, natur ondareari buruzkoak. Nahiz bereizketa ez zehatza izan osoki, hor ziren 50 elkarteak horrelatsu berezitan ahal ziren. Arte erakusketekin batera etxegintzari buruzkoek toki garrantzitsua hartu zuten. Larunbat arratsaldeko eztabaida solasaldi luzea etxegintzaz Euskal Herrian gai horrekin koka zitekeen.

Ostibarreko Larzabalen, bide nagusia zabaldu zutelarik, bide bazterrean zegoen Pagoileta etxearen lurreratzea erabaki zuten botere publikoek, ezinbesteko zelakotz. Hori operazio handi baten aitzakia gertatu zen duela bi urte. Departamenduko Kontseilu Nagusiak finantziatu zuen xede baten parte handia: etxearen eta bere egituren ikerketa zientifiko baten bideratzea.

Ikerketa horien emaitzak entzun-ikus baten bidez aurkeztu ziren Irisarrin Denen Etxean. Nafarroa Behereko etxe zaharrak zurezko egitura bereziarekin gertatu ziren, ez soilik 16. mendean baina askoz beranduago ere, 20. mendea arte. Mikel Duvertzek Martxutako Urruti zurginarekin inkesta etnografiko zabala eratu zuen duela bost urte. Horren agerpenak ikuskari ziren ere Denen Etxean.

Lauburu elkarteak hogeitau huetan euskal ondare arkeologikoaren salbatzeko lan handiak egiten ari ditu. Hasi zen galtzen eta lapurtzen ari ziren hil harri diskoidalaren artxibatze eta zutik jartzeko lanetan. Nafarroa Beherea Euskal Herriko toki aberatsena da hil harri hoietaz. Indar handia egin da eta ia erran daiteke eskualde hori erakustoki zabal bilakatu dela.

Beste inizatibak hasi dira gerotik Iparraldean. Isturitzen herriko plazan den Xanxotea etxean egindakoa eredu garria da. Uztariztar bat hara joan da etxe horretan erakustoki baten eraiki-

tzeko. Aspaldiko urteetan bildu burnizko edo zurezko lan tresnak elkarrekin jarri ditu. Irisarrin zuraren lantzeko tresna batzuk ikuskari jarri zituen.

Irisarriko egunetan agertu dena da ere 'euskal museografia' beharrezkoa dela. Txomin Hegi, Euskal Kultur Erakundeko zuzendariaren arabera, Baionako Euskal Erakustokia biderkatzen ari diren tokiko erakustoki txikiago eta ahal gutiagokoen laguntzaile eta erreferentzia zientifiko bilakatu behar daiteke. Irisarriko egunetan agertu da ere Departamenduaren jabetasun denaren etorkizunari buruz EKEk galdezketak bat egin zuen. Etxe handi hori alabaina bilaka daiteke erakustoki edo arkeologikak sortu emaitzen bildune.

Euskarkeologia elkarteak Irisarrin mahai guziz ikuskariak prestatuak zituen. Elkarteak, administrazioaren kontrolpean toki batzuen aztarna prehistorikoak ikertzen ditu, batez ere Irisarri aldean. Emaitzek agertu dute, aspaldian Isturitzeko Otsozelaiko harpeek erakutsi zutena, oraindik aberastasun eta lekukotasun ugari lurpean badirela Nafarroa Beherean.

Euskarkeologiako kideek publikoari eta batez ere gazte guziz interesatuei, prehistoriako su pizteko edo harpoi eta tresnen erabilerak erakutsi zituzten bi egunez. Suaren piztea ez dela hain erraza agertu zuten: bi su harrien arteko txoketik ondo baten mamiaren piztea edo zuirak elkarren artean berotuz, teknika finak ziren. Harrien lantzea, perkutoreen bidez edo harpoien jaurtikitzeko teknikak azaldu zituzten.

Harri Harriak elkarteko zuzendariak, Blot medikuak maketak aurkeztu zituen. Protohistoriako ehorzketa errituen agerpenak ziren. Triku harri eta beste ehortzlekuak erakutsi zituen.

Gutarik hurbilago, Donapaleuko 'Nafarroa beheko Erakustokiak' bere Santiagoko Bidean agerpenak azaldu zituen. Nafarroaren Iparraldea alde guzietarik ondare handi apainaren babesleku dela Irisarrin ederki frogatu zen.



Harpoiaren erabilera ikasten, duela 15.000 urte bezala.

LUZIEN ETXEZAHARRETA



Isturitzeko Xanxotearen erakusketa.

LUZIEN ETXEZAHARRETA



Suaren piztea.

LUZIEN ETXEZAHARRETA

«Eraikin berria edo desagertu, hori zen gure aukera»

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Paz de Ziganda Atarrabiako Ikastolak eraikin berriaren lehen harria jarri zuen joan den larunbatean. 1991. urtean Nafarroa Oinez bertan ospatu zuten eta egun hartan lortutako diruari esker hasi da Atarrabiako ikastolaren aro berria. Jose Luis Gorostidi Paz de Zigandako zuzendaria da eta

bertan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza sartuko ditugu eta Batxilergoa sartzeko aukera ere aurrikusita dugu. Jantokia eta soinketarako gela ere bertan izanen dira. Eraiki gabe geratuko zaizkigu, oraingo, Haur Hezkuntzarako eraikina, kiroldegia eta pilotalekua. Bigarren fase honi lehen baino lehen ekin nahi diogu baina

Azkenik, beste 400 milioi bankuekin negoziatu ditugu. Guzti horrekin, aurrera goaz.

EGUNKARIA.— Hala ere, larunbateko ekitaldian Nafarroako Gobernuak laguntza eskasa dela aipatu zuen ikastolako lehendakariak.

GOROSTIDI.— Lehentasunezko interesa duen ikastetxea izateak zera erran nahi du: Nafarroako Gobernuaren eskutik

titzen ari gara, etorkizunari begira batez ere. Gobernuak kontuan hartu beharko luke hori, ia mila ikasle daude bertan eta erantzun bat eman behar zaie. Bidezkoa dena baino ez dugu eskatzen.


EGUNKARIA.— Atarrabiako eta Burlatako udalen jarrera, bestalde, nolako izan da?

GOROSTIDI.— Udalen aldetik denetarik jaso dugu, laguntza, trabak, mota guztietako jarre-erak ezagutu ditugu. Udalek inoiz izan ez dutena jokabide garbi eta argia izan da, egonkorra. Batzuk dugun kutsu pribatuaren beldur dira, besteak euskaldunak garelako, eta udalak ere ez daude erabat gure alde. Laguntzak eman dizkigute baina oraindik ere badira zenbait gauza konpondu gabe. Egundak ere eraikin berriak egiteko lurra erosi baditugu, beste aukerarik ez genuelako izan da. Bestelako bideak jorratzen saiatu ginen baina udalek ateak itxi egin zizkiguten.

EGUNKARIA.— Paz de Ziganda Ikastolak 25 urte bete ditu. Urte luze hauetan zein izan da ikastolaren ibilbidea?

GOROSTIDI.— Zatiketa baten ondorioz Uxueko Ama ikastolatik sortu ziren bi ikastola, bata San Fermin Ikastola Zizur aldean eta bestea geurea. Euskalerraren Adiskideak elkar-teen titularitatearen pean egon zen urte askotan, 1981era arte.

Bide horretan, 1970. urtetik aurrera, leku ezberdinetan egon gara, Dominikarren egoitzara ailegatu arte. Bertan hogeitaz eman ditugu baina aldaketarako garaia heldu da. Eraikin berria egin edo desagertu, hori zen gure aukera, dugun ikasle kopurua ikusita. Lan handia egin dugu eta bizi-rik irauteko proiektua dugulakoan gaude. Harro sentitzen gara eta gizartearen eta euskal kulturaren alde zertxobait egiten dugula uste dugu.



Jose Luis Gorostidi.

JOXE LACALLE

aurten ikastolak 25 urte betetzen dituela aitzakiazat hartuz, bere ibilbidearen gora-beherei buruz mintzo da.

EGUNKARIA.— Joan den larunbatean jarri zenuten eraikin berriaren lehen harria, proiektu berriari ekinez. Zer moduz doaz gauzak?

JOSE LUIS GOROSTIDI.— Epe baten amaierara iritsi gara eta berriari hasiera eman diogu. Orain arte inoren etxean egon gara, batetik bestera diasporan. Dena dela, zailtasun handiak pasatu ondoren, hasiera gauzatzera iritsi gara. Irailaren lehen ekin genion eta oraingo proiektu osoaren zati bat geratuko dugu: eraikuntza nagusia,

oraingo ezin dugu.

EGUNKARIA.— Proiektu berria aurrera atera ahal izateko zer-nolako laguntza jaso duzue?

GOROSTIDI.— Lehenik eta behin, 1991ko Nafarroa Oinez en eskuratu genuen dirua izan dugu eta horri esker lurra erosteko behar genuenaren zati garrantzitsua bete dugu. Bestetik, orain dela hiru bat urte hasi ziren gurasoak kuota bat jartzen, genituen gastuei aurre egin ahal izateko. Nafarroako Gobernuak ere 132 milioi eskaini digu, Administrazioaren arabera, lehentasunezko interesa duen ikastetxea baita Paz de Ziganda ikastola.

% 50a arteko diru laguntza jasotzeko eskubidea dugula. Baina politikoen borondateak zerikusi handia du kopuru horretan eta % 50 gehienez jaso dezakeguna den arren, kopuru txikiagoak ere jaso ditzakegu. Proiektu berriaren aurrekontua, adibidez, mila milioi ingurukoa da eta Nafarroako Gobernuak 132 milioi eman dizkigu, % 13. Hala ere, hori gabe zaila izango litzateke hasia. Eskertzekoa da baina ez goraiatzekoa. Edonola ere, ez zaigu inoiz burutik pasatu dena Gobernuaren esku uztea, sakrifizio handi eta latzak egiten ari gara guztiok baina hezkuntza proiektu batean inber-

Jose Luis Gorostidi

PAZ de ZIGANDA
IKASTOLAKO
ZUZENDARIA



SOSLATA

Beti zuzen dari

Jose Luis Gorostidi Lizarrako ikastolatik heldu zen Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolara. Lizarran bost urtez izan zen zuzendari eta Paz de Zigandara ere kargu berarekin sartu zen, orain dela bederatzi urte. «Beti izan naiz hemen zuzendari, zoritxarrez edo zorionez», azaldu du Gorostidik. Bere lanarekiko konpromezu garbia izan arren, talde lana da bere ustez garrantzitsua. «Lan handia egin dugu eta arazo asko izan ditugu bide honetan. Baina aurrera jarraitu dugu, haurren gurasoekin batera buru-belarri».

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

